13 Calle de Santa Maria,

Errenterriyan Garagarrillan 6 - 1899 urtean

Jaun Edward Spencer Dodgson
Biarritzen

Micoletaren gainean,

Nere adisquide Edward; Nere escuetaratu da suk corrigoz biraldu dirazun liburua eta sinista sazu asco estimatsen dedala zure oroipena.

Iracurriko det asi eta buka bitartean, baño leku ascotan ecusten det liburu ontaco euskera dala biciro gure an gandik diferentea: Exemploa "Cordero - Aria" Seculan ò beiñere ez da isandu Euskeras "Cordero-Aria" Cordero da Eusqueras "bildotsa" eta "Aria" da Carnero. Modu onetan topatsen ditut asco descuido nola Euskeran ala Erderan eta iduritsen sait artsen badezu inoiz asmorik irugarren aldean moldisqui datseko liburuchu au obea isango dala onqui ez dauden its guciac sucentsea

Orrembertere quin bucatsendet

nere esan bearra cergatik gaurkoan
ez det denborarik gueyagorako ala
non artu esazu nere laztan gozobat
eta gueldditsen naiz beti-betiko zure
adiisquide

Ygnº Echeverria